

elkarren antzik handiena zutenak. Baina etxea gure antzera garbitzen zutela jakitea baino garrantzitsuagoa zen jende hori nola sentitzen zen jakitea. Eta suposatzen dut idazterakoan nik neuk ere hori egin nahi izaten dudala: gaztetan ezagututako mundu hori egun bizi dudan erreallitate gerturatu, eta bi erreallitate horien arteko hibrido bat sortu. Idazketa da horretarako lekurik



Gaztetan ezagututako mundua egun bizi dudan erreallitate gerturatu, eta horrekin hibrido bat sortu nahi izaten dut»

«Nire familiako emakumeek gauzak kontatzeko zuten modua berregiten saiatu nintzen»

onena. Hizkuntzarekin ere egiten dut saiakera hori nobela batzuetan. *Azken patriarka* liburuan, esaterako, nire familiako emakumeek gauzak kontatzeko zuten modua berregiten saiatu nintzen. Hor atztean, nonbait, nire amaren hizkuntza dago.

Jo també soc català liburuak he-dapen handia izan zuen, baina zure semeak egindako galdera bat du abiapuntu: «Ama, ni ere katalana naiz?».

Ume bat duzunean, zeure buruari aurrez sekula egin ez dizkiozun hainbat galdera erantzun behar izaten dituzu. Seme bat duzunean, zerbait transmititu behar diozu. Liburuak lagundu zidan hausnartzen ea benetan zer zen neure semeari transmititu nahi niona gai honen inguruan. Aldarrikapen bat ere bazen, beste edozein bezain katalan sentitzeko dudana eskubidearen alde, neure sus-traiak oso presente izanik ere. Iruditzen zait migrazioaren seme-alabontzat garrantzitsua dela gauden lekukoak ere bagarela aldarrikatzea.

Katalantasanari buruzko dis-kurtso nagusiei aurre egin beh-ar izan diezu horretarako?

Egitura trinkoa du lanak, iru-diairen eta testuaren arteko elkar-lan handiarekin kontaketa gara-tzean, narratzailearen eta irudien artean informazioa erdibana nola kudeatzen den lehen orrialdetik erakusten zaigunez. Istoria etorkizunean kokatu-rik agertzen zaigu, baina paisaia ez da asko aldatzen gaur egungo-tik, janzkera, ohitura eta gainera-koetan (autobusean bidaiatzea, esaterako).

Absurdoaren antzerki soziala

Alex Gurrutxaga

Antzerki-testuen argi-talpen oro har urriaren baitan, ale esti-magarria kaleratu du EDO etxeak aurtun: Gaizka Sarasolaren *Erleak, satorrak, beleak*, hiru testu oso onekin osatutako bilduma.

Kaleko hizkeran, zentzugabea-ri hots egiten diogu *absurdo*. Li-teraturan, ordea, absurdoa ez da zentzurik gabea. Absurdoaren antzerkia II. Mundu Gerraren testuinguruan sortu zen, ematen zuenean hitzak ez zeukala ahalik haragikeria krudeleni aurre egi-teko. Baina, paradoxikoki, absur-doak hitza indartu ere egiten du, hitz soila erretorikatik askatu eta bestelako testuinguruan koka-tuz. Absurdoa, beraz, adierazpen modu jakin bat da: azaleko na-hasmen duaren azpitik, tarteka azaleratzen den ibai esanguraz bete da doa. Sarasolaren antzerkia marko horretan koka genezake.

Absurdoaren teatroaren ezau-garri asko dauzka: akzio gutxi, tempo pausatua, ironia, errepika-penak, elkarriketa amaigabeak eta kolpean eteten direnak, pau-sak, hitz jokoak, esaldi kontrae-



‘Erleak, satorrak, beleak’

Idazlea: Gaizka Sarasola.
Argitaletxea: EDO.

Gauza txikien bilduma handia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Gazteentzako zein hel-duentzako komiki hau eskuratu berri dut Getxoko komiki azokan, egileek sinatuta, eskain-tza eta guzti! *Gozada* bat.

Egitura trinkoa du lanak, iru-diairen eta testuaren arteko elkar-lan handiarekin kontaketa gara-tzean, narratzailearen eta irudien artean informazioa erdibana nola kudeatzen den lehen orrialdetik erakusten zaigunez.

Istoria etorkizunean kokatu-rik agertzen zaigu, baina paisaia ez da asko aldatzen gaur egungo-tik, janzkera, ohitura eta gainera-koetan (autobusean bidaiatzea, esaterako).

Gidoiaren haria bi partetan ba-natuta dago, protagonista baka-rrarekin. Lehen partean, museoen bildumagile profesionaltzat aurkezten zaigun pertsonaiak lau museo erakusten dizkigu. Biga-rren partean, Anaia Handiarena dirudien herrialdera garamatza, eta tramak bide berri bat hartzen



‘Museo bilduma’

Idazlea: Harkaitz Cano.
Ilustratzailea: Iñaki Holgado.
Argitaletxea: Ikastolen Elkarte.

sanezkoak, zentzu biko adieraz-penak, metateatroa –bizitza espektakulu bihurtua–, estatiko-tasuna... eta Sarasolaren kasuan azpimarratzekoak, hizkera poeti-koa. Oier Guillanek hitzostean dio «oihartzun politiko sendoko hizkera poetikoz josia» dela; baietzkoan nago ni ere. Orokor-tuz, antzerki modernoaren tek-niken erabilera fin eta zaindua da Sarasolarena.

Lehen testuak, *Urak ttiki dire-k*, gatzkaren testuinguruan dauden pertsonaia biren amodio harremana dakar. Erreferentzia literarioa Godot izan daiteke, baina dimensio soziopolitiko nabaria da hemen. Tituluak markatzen du jada ildo hori, eta testuko hainbat elementuk –ezpata, erregea, lehergailua, etab.– irakurketa soziala indar-tzen du.

Lur azpikoak testuan, lagun batzuk elkartu eta musean hasi dira. Baina hastapen itxuraz kos-tunbristak laster hartuko du beste bide bat: meatzariak dira, satorrak, eta haien egoera ilunak eta borrokak dira gai nagusia. Pertsonaietako bat Espainiakoa da, eta, haren bidez, langileen migrazioa ere azaleratzen da. Kasu horretan ere, elementu gutxiarekin testu aberatsa sortu

du egileak. Beste zeinuen artean, argiak hartzen duen garrantzia nabarmendu daiteke: zeinu kla-bea da, bai *Lur azpikoak* testuan baita *Talaka*-n ere.

Azken testua da *Talaka*. Baka-rrizketa da, baina bi ahots daude: pertsonaiarena –karakterizazio gehiagorik gabea– eta *off*-eko ahotsarena –zeinak langile-bo-rrakoren gaia txertatzen duen–. 18 pieza labur-laburrez osatutako testua da; bakoitzak tonu bat ira-dokitzen du –lana, oinazea, inda-rra, eta abar.–, eta elementu na-rratibo lotzaile gogor bat dauka-te: pertsonaiak etengabe daragio talakari, beleak zaborretatik uxat-zeko. Hauxe da beharbada testu soziala: lan etengabeari katez loturik dagoen gizakumearen alegoria. Akzio mugatua eta errepikorra da –zutitu-eseri, mantala jantzi-erantzi, eta abar.–, hizkera bio-lentoa, eta aparteen erabilera es-trategikoak mezua indartzen du.

Amaitzeko, esan dezagun oso egokia dela liburuarren edizioa ere: fisikoki dotorea da, testua-ren edizio eta zuzenketa aldetik txukuna, eta Galder Perezen hitzaurreak eta Oier Guillanen hitzostekak jantzi egiten dituzte Sarasolaren hiru testuak. Txalo-tzeko lana.

du amaiera arte. Nire ustez, mami handiena lehen partean eskaintzen zaigu, literaturari da-gokionez. Batetik, pertsonaia eta narrazioa eraikitzen ari den lehen parte horretan, nahikoa ekintza eta literatur-jolas aberats eskai-nita, goi mailako hausnarketa eta obra dela proposatzen zaigu; bai-na, bigarren partean, hari guztiak lotu eta proportzioko gorputza hartuko dutela espero denean, proposamen bikaina ez da iritsi, eta aurreikuspena zapuztu egin zait.

Hori bai, liburu osoa, hasiera-tik amaieraraino, hausnarketaz, bitxikeriaz, eta zeharkako keinu-z josia dugu. Agertzen lehena Az-ken borondateen Museoa dugu, besteak beste, gutun, paisaia, kanta, argazki, eta hilarrietako epitafoekin (Barack Obamarena barne), gidoilariaren lehen kolpe gogorrekin batera: «Heriotza eta pentsatu, biak esaldi berean? Arriskutsua izan daiteke...». Bi-garregoa, Labyrinth museum-ean, labirintoak nolakoak izan diren eta zertarako erabili diren erakutsi ahala, hausnarketa za-parradak jarraitzen du; «...zen-bait maitasun eta zenbait labirin-to garaiz uzten jakitea komeni

da» edota «bizitzan hartzen di-tugun erabakiak ere (...) ez ote dira irteerarik gabeko gure labi-rintoaren parte?».

Tartean Bor-gesen ipuintxo baten bertsoia oharkabea bezala sartzeko au-kerak galtzeko. Hirugarrena Museoa elurtua da. Giza izpirituaren bihurtzea no-raino hel daitekeen iradokitze-erabiltzen da, arte-lan miretsie-nak tontor arriskutsu eta garaie-netan ipinirik jendeak bizia nola galtzen duen erakutsiz (eta, bide batez, haraino heltzeko bizia arriskatzeko zein ergela den irado-kiz...). Hamahiru Museoa da era-kusten zaigun azkena –hausnar-ketetan hutsalena–, sineskerien bilduma erakusten duena, edo-nori burura datozkion topikoe-kin, eta sineskerien aldeko apolo-gia-eszena batekin amaitzen dena.

Kontaktetaren bigarren partea iristen, protagonistaren bizitza-ra egiten dugu jauzi, XX. mende hasierako literatur apokaliptiko-ak (Orwell eta Huxley ditut gogo-ari) erakusten zuen erako gizarte futurista batean txertaturik, kon-taketari zinema amaiera emate-ko, Kubricken 2001: espazio odi-sea bat filmeko eszena batekin.